

Memoria
Loiolaetxea
2022

El que viene a nuestra casa
está en su casa

Seguimos celebrando la vida tras
20 años como entidad

Asociación Loiolaetxea, 2023

Impreso en España. *Printed in Spain*

Impresión y encuadernación:

Ulzama Digital – Huarte (Navarra) / www.ulzama.com



ESKERRIK ASKO
SUCRAM DYAKUYU GRACIAS
2022

Seguimos celebrando la vida tras 20 años como entidad

Como buen ejercicio del año, desde la Asociación Loiolaetxea para la Integración Social hacemos memoria agradecida. La mirada de este año 2022 está puesta en todo momento en la *misión*, en el camino recorrido por y para ella, en el sentido y en el horizonte que nos ha dado. Horizonte que nos habla de proceso, de recorrido, de experiencia... Es un camino que ha merecido la pena haber hecho, pese a que muchas veces ha sido complejo, otras muy bonito... y, sobre todo, que nos ha permitido el lujo de experimentar intensidad, sufrimiento, baches, caídas y remontadas, éxitos y fracasos, luces y sombras... Pelear la vida y pelear por las causas justas nos ha dado sentido como personas, como equipo, como voluntariado, como profesionales, como comunidad y como institución, ya que habla de vida, de vidas, de humanidad, de oportunidades, de inclusión, de cuidados, de historia vivida e historia que nos queda por vivir.

Dicen que una imagen vale más que mil palabras... y quisiéramos resumir el año compartiendo algunas imágenes que dicen mucho de lo que somos y de lo que hemos construido a lo largo de él.

Memoria 2022
Loiolatxea







Y teniendo presentes estas imágenes, sin perder en ningún momento el origen que nos une a todas las personas que formamos parte de Loiolaetxea, quisieramos agradecer tanto dado y compartido para poder *acompañar, servir, reflexionar, incidir y transformar las causas injustas en justas*. Deseamos que las semillas de resistencia plantadas durante el año 2022 sigan brotando a lo largo del 2023, 2024, 2025... Y que sigamos vibrando para que ninguna persona quede fuera, para que no haya ciudadanas de primera ni de segunda, para que no haya irregulares, para que tengamos las mismas oportunidades de disfrutar de una buena calidad de vida, tengamos acceso a derechos y sintamos que podemos autodeterminarnos. Que el paraguas que nos cobija nos diga que *juntas* hemos sido y somos más.

El grueso de nuestros recursos, esfuerzos y actividades ha estado y sigue estando volcado en el acompañamiento y el servicio y, en menor medida, en la sensibilización. A lo largo de esta memoria agradecida, podremos destacar algunos de los hitos más significativos de las reflexiones llevadas a cabo, de los necesarios encuentros comunitarios, del cuidado del equipo y de la enriquecedora diversidad de personas que han luchado a diario para tener una vida mejor.

El despliegue de las líneas de intervención *-inclusión, justicia y hospitalidad-* como reto nos ha puesto a prueba como equipo, por tener que hacerlo con las fuerzas repartidas para sacar adelante *proyectos novedosos* como Marhaba, Loturak y Auzolana II dentro de la atención a la línea de la hospitalidad o el *reajuste de los servicios residenciales específicos o mixtos* dentro de las líneas de atención a la justicia y a la inclusión, sin perder la esencia del modelo comunitario de Loiolaetxea.

La respuesta a tanta necesidad emergente a lo largo del 2022 ha exigido poner más que nunca la misión de Loiolaetxea en el centro, recordándonos a cada momento para qué nació, el sentido que hoy tiene y su renovación como parte del compromiso al que seguir dando respuestas con sentido misional. Para ello, se ha seguido trabajando en equipos transversales a las tres líneas de actuación que han posibilitado crecer en esa mirada común hacia la *lengua y cultura vascas; la participación*

para potenciar las oportunidades y fomentar la ciudadanía inclusiva; la *espiritualidad* que transmite esa fuerza no tangible en los procesos de inclusión social; la *igualdad y equidad de género* como principio básico de funcionamiento institucional; el *cuidado de la casa común* que nos da cobijo en todo momento; el cuidado en *la acogida* como pilar en la entrada a Loiolaetxea; fomentar *el entorno seguro* tanto laboral como relacional dentro de ese cuidado a personas más vulnerables; generando reflexión y buscando nuevas oportunidades en torno a *la empleabilidad*; Y cómo hacer todo esto sin encontrar buenos cauces de *comunicación* hacia adentro y hacia afuera del equipo para facilitar la incidencia y la transformación social.

Nuestra misión está alineada con la misión de la PA (Plataforma Apostólica de Loyola, en el País Vasco y Navarra, en adelante PA), del SJM (Servicio Jesuita Migrante de España, en adelante SJM), del Sector Social y de la Provincia de España de la Compañía de Jesús. Y, por supuesto, alineada con el Sistema de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Departamento de Política Social Foral de Guipúzcoa, el Sistema Penitenciario del Gobierno Vasco y el Departamento de Migraciones del Gobierno Vasco. Los cuales, a su vez, han aportado muchos de los recursos para dar una buena atención de manera conjunta, para que los procesos de inclusión y de reinserción social hayan sido posibles, posibilitando nuevas oportunidades a muchas personas que se encuentran en una situación desfavorecida, de vulnerabilidad, riesgo o exclusión social.

Terminamos el año teniendo como bandera seguir *peleando la vida por la inclusión y la justicia social*. Gratitud infinita a todas aquellas personas que han colaborado desde su voluntariedad, su presencia en la comunidad, desde los gestos invisibles, desde el estar y dejarse estar, así como a las instituciones y la base social que han depositado confianza y firmeza en esta apuesta común, ya que *gracias a todo este hacer juntas*, ha sido posible que el 2022 haya sido algo más que un año sin más.

Bihotz - Bihotzez
MARTA SILVANO PRIETO
Directora de Loiolaetxea



QUIÉNES SOMOS

La Asociación Loiolaetxea para la Integración Social es una entidad de intervención socioeducativa, bajo una comunidad de hospitalidad, nacida en el año 2000 del esfuerzo de la Compañía de Jesús, en colaboración con la Universidad de Deusto, el Colegio San Ignacio de Donostia, la Compañía de María - OnDoAn, Arrupe Etxea, el Centro Loyola y la Comunidad de Vida Cristiana (CVX) para construir una sociedad más justa en la que todas las personas puedan ser protagonistas, tengan las mismas oportunidades y posibilidad de participar generando conciencia ciudadana para la incidencia y la transformación social.

NUESTRO MODELO DE INTERVENCIÓN

Acompañar

El acompañamiento se da en la desnudez del encuentro humano, cuando las personas se descubren en su humanidad compartida y celebran conocerse. Así vamos estableciendo relaciones horizontales entre compañeros y compañeras, y caminamos juntas hacia el horizonte desde lo cotidiano de la vida. Acompañamos y nos dejamos acompañar. Para nosotras el acompañamiento con las personas que se encuentran en situaciones desfavorecidas es un reto y un desafío permanente que hacemos con otras organizaciones y obras con las que trabajamos. En nuestra sociedad, entendemos que el acompañamiento requiere arraigo en los lugares donde estamos y vínculos que nos permiten una relación de ayuda fiel para los procesos inclusivos; en el encuentro con las personas que se comprometen y con los grupos de nuestra sociedad con quienes caminamos.

Servir

El servicio surge cuando caemos en la cuenta de que contamos con recursos que ponemos a disposición de las personas que se encuentran en situaciones desfavorecidas para la mejora de sus condiciones de vida. Nuestros servicios se llevan a cabo a través de las líneas de actuación que ofrecen proyectos y servicios para dar calidad de vida y potenciar la transformación personal en favor de las causas justas.

Reflexionar

La participación en investigaciones y reflexiones, que toma como punto de partida la experiencia del servicio, proyectando sobre ella la luz del

conocimiento académico y la profundidad de los datos; es un pensamiento que nace de la acción y busca modos de impactar en la realidad en favor de las personas que se encuentran apartadas de la sociedad, en riesgo, vulnerabilidad o exclusión social.

Sensibilizar

Fomentar procesos y elaboración de duelos de las experiencias vividas, para poder ofrecerlas al diálogo, forma parte de la transformación personal con la que se procura la concienciación de personas, comunidades y entidades. Se difunden ideas, talentos, actitudes y símbolos que anuncian la novedad y lo desconocido que estamos llamadas a conocer. La sensibilización se orienta a alcanzar una transformación de las formas de hacer y de la cultura en la que estamos inmersas. Traza puentes de amistad entre diferentes grupos sociales. Crece con el contacto y con la relación que se genera en esos espacios. Es un aspecto central y transformador que desplegamos a través de los procesos de inclusión, terapéuticos, de justicia restaurativa, hospitalidad, movilización social, participación, comunicación y acción voluntaria.

Transformar

La incidencia pública y la transformación estructural, que refleja nuestro simple modo de hacer y de situarnos desde lo comunitario y desde el trabajo social, esperamos que no solo sea un efecto a corto plazo, sino que genere modelos de ser, de estar y de hacer sostenibles en el tiempo. Especialmente importante para la incidencia política, intentando hacer llegar los intereses de quienes tienen dificultad para que se les oiga. En nuestro caso, la movilización social y la incidencia se dan a través de nuestro ser y estar, del trabajo en red y del diálogo con las personas que tienen capacidad de tomar decisiones a nivel público y privado.


BALANCE DE INGRESOS Y GASTOS DEL 2022

INGRESOS	GASTOS	RESULTADO
Subvenciones públicas, donativos y aportaciones privadas	Recursos humanos Servicios Gestión Materiales y Equipo Actividades del Centro Amortizaciones Servicios Centrales	24 373 €
932 570 €	908 196 €	


Cuentas Auditadas por

BNFIX


INGRESOS - AÑO 2022



GASTOS - AÑO 2022



GASTO POR PROGRAMA



NUESTRO IMPACTO EN CIFRAS

Desarrollamos nuestra labor desde varios cuidados básicos y transversales a las tres líneas de intervención; desde el cuidado de equipo y la mirada de género, desde la diversidad cultural, espiritual y multi-lingüe, desde el cuidado de la casa común y bajo un entorno seguro.

En el conjunto de las tres líneas de actuación: inclusión, justicia y hospitalidad, se extraen los números totales que dan fuerza y sentido a lo que Loiolaetxea ha podido desplegar a largo del año 2022 para fortalecer las causas justas como árbol robusto y que sigue a la vez siendo generador de fuente de vida.

Sin perder de vista el *índice de satisfacción global*, del 8,4, expresado por las propias personas a las que servimos, recogemos las cifras generales de atención de las mismas:

NÚMERO TOTAL DE PERSONAS ATENDIDAS
254

LÍNEA INCLUSIÓN	LÍNEA JUSTICIA	LÍNEA HOSPITALIDAD
47 (10 M Y 37 H)	59 (5 M Y 54 H)	148 (89 M Y 59 H)
MUJERES 104		HOMBRES 150

PROCESOS DE INCLUSIÓN	PROCESOS DE JUSTICIA	PROCESOS DE HOSPITALIDAD
47	59	148

MUJERES PALMERA DE DÉBORA	JÓVENES AHOTSAK Y MARHABA	FAMILIAS AUZOLANA II Y LOTURAK
15	39	24

VOLUNTARIADO	PARTICIPACIÓN Y ACTIVACIÓN SOCIAL
92	178



SOMOS TIERRA DE ACOGIDA

Una iniciativa para exigir a Europa que respete la dignidad y los derechos de las personas migrantes y refugiadas. Una oportunidad para que aquellas que se encuentran en situaciones vulnerables y vulneradas sean reconocidas como personas en el mundo de las personas.

LÍNEA DE INCLUSIÓN

La definimos como el derecho de acceso a derechos fundamentales: educación, vivienda, salud, protección socioeconómica y acceso a la participación para la ciudadanía global.

Han sido 47 *personas* quienes tuvieron la posibilidad de beneficiarse de servicios de atención y protección residencial o acompañamiento especializado no residencial.

La línea de inclusión está en el origen de Loiolaetxea como iniciativa propia de la Compañía de Jesús y se ha ido desarrollando con la financiación pública y privada. La atención ha estado centrada en aquellas personas que son valoradas a través de los Servicios Sociales con la herramienta de la exclusión social (BARE) que les ha permitido acceder a los servicios residenciales y no residenciales de Loiolaetxea subvencionados con un programa-contrato con la Diputación Foral de Gipuzkoa para ello.



LÍNEA DE JUSTICIA

La privación de libertad posibilita parar y volver a activarse para hacerse tangible cuando la persona es considerada y participa activamente como una ciudadana de nuevo. Ser persona en el mundo de las personas y ser tratada como tal y poder volver a participar tras un breve parón.

Han sido 59 *personas* quienes tuvieron la posibilidad de beneficiarse de servicios de atención y protección residencial o acompañamiento especializado no residencial. De disfrutar de sus permisos de 2.º grado y posibilitar los procesos en progresiones de grado.

La línea de justicia penitenciaria está también en el origen de Loiolaetxea como iniciativa propia de la Compañía de Jesús y se ha ido desarrollando con financiación privada y con un reparto de

los recursos públicos recibidos para los procesos de inclusión hasta el 2021. En octubre del 2021 se llevaron a cabo las transferencias penitenciarias a la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el 2022 se dispensaron recursos públicos específicos para posibilitar los procesos de reinserción social desde el Gobierno Vasco. A lo largo de este año 2022 se han empezado a diseñar y desplegar recursos propios para atender la reinserción social.



LÍNEA DE HOSPITALIDAD

La visibilizamos en generar una cultura de hospitalidad para mejorar la calidad de vida humana, que facilite oportunidades, que ofrezca calidez y aporte calidad en los procesos vitales de personas que optan por la autodeterminación, en clave de derecho a la movilidad humana.

Han sido 148 *personas* (algunas de ellas que forman grupos familiares) quienes tuvieron la posibilidad de beneficiarse de servicios de atención y protección residencial o acompañamiento especializado no residencial.

La línea de hospitalidad se inició en el año 2017 como iniciativa propia de la Compañía de Jesús con recursos propios para ello. La atención ha estado centrada en aquellas personas migrantes que se quedaban fuera del acceso a derechos por no cumplir los requisitos para ello. A lo largo de este año 2022, se ha ido viendo que la movilidad humana, en muchos casos forzada por situaciones de conflicto y por las necesidades fruto de la desigualdad que se vive en muchos países, va en aumento, por lo que se ha puesto en la agenda como un tema prioritario tras evaluar el recorrido realizado hasta ahora y constatar que tras el estallido de varios conflictos en países vecinos necesita ser reforzada.




MUJERES Y EMPODERAMIENTO PALMERA DE DÉBORA

Hay espacios compartidos con OnDoAn Topagunea, Fundación Ellacuría y Alboan donde las mujeres conocen y reflexionan sobre sus derechos como mujeres y como mujeres migrantes. Participan como protagonistas para visibilizar, sensibilizar y reivindicar derechos.

Han sido *15 mujeres* militantes, protagonistas que con constancia y ahínco han participado a lo largo de este 2022 en diversas actividades relacionadas con:

- Formación
- Autoapoyo
- Sensibilización
- Participación ciudadana



JÓVENES Y PARTICIPACIÓN AHOTSAK Y MARHABA

El programa acompaña a jóvenes migrantes sin referentes familiares en sus procesos de autonomía personal, para lograr un ejercicio de ciudadanía participativa y activa, por medio de la creación de espacios residenciales comunitarios, de encuentro con juventud autóctona, y fomentando su participación social.

Han sido 39 jóvenes quienes tuvieron alguna vinculación con el proyecto en las diferentes actividades y acciones desarrolladas:

- Actividades de ocio y tiempo libre; campamentos, culturales, deportivas...
- Actividades de trabajo voluntario y de servicio a la comunidad.
- Participación en actividades de sensibilización en centros educativos de primaria, secundaria y universitaria. Y con otras asociaciones o movimientos sociales.



FAMILIAS

RED MAMBRÉ, AUZOLANA II Y LOTURAK

Han sido *24 familias* diversas en cultura, procedencia (Siria y Ucrania fundamentalmente), religión y momento vital quienes tuvieron la ocasión de ser acogidas a lo largo de este 2022, con el reconocimiento y protección de refugio. A lo largo de este año han podido formarse, participar activamente en nuestra sociedad y establecer una vinculación con otros grupos locales, con quienes en las diferentes actividades y acciones desarrolladas se ha ido dando un encuentro comunitario de riqueza humana, fomentando una cultura de hospitalidad que buscamos cuando decimos que somos tierra de acogida.





Red Mambré Sarea

Red de Familias de Acogida a personas migrantes y refugiadas.
Biskaila, Gipuzkoa y Navarra

Persona migrazioaren eta errefuxiatuen Harrera Familien Sarea
Biskaila, Gipuzkoa eta Nafarroa

OnDoaN Topagunea y Loiolatxea tenemos el gusto de invitarte a la **PRESENTACIÓN** de nuestra recién creada Red de Familias de Acogida a Personas Migrantes y Refugiad@s.

OnDoaN Topaguneak eta Loiolatxeak sortu berri den Pertsona Migratzaile eta Errefuxiatuen Harrera Familia Sarearen **AURKEZPENERA** gonbidatzen zaituzte atsegín handiz.

Zatoz gure harrera Sarea ezagutzera!

¡Hacer que alguien se sienta acogido es mucho más fácil de lo que crees!

CURSO 22/23

Abenduak

16.

Diciembre

18:30

Sala Arrupe-Centro Loyola Andia 3, Donostia

PROGRAMA / EGITARAUA:

- Contextualización de la situación actual migratoria en Euskadi. / Euskadiko migrazio egoeraren egungo testuingurua.
- ¿Qué es la Red Mambré? / Zer da Mambré Sarea?
- Testimonios: Varias personas compartirán sus experiencias de vida / Lekukotzak: Hainbat pertsonen beren bizipenak partekatuko dituzte.
- Propuesta Concurso Literario sobre Migración y Acogida. / Migrazioari eta Harrerari buruzko literatura-proposamena.

Red Mambré Sarea Gipuzkoa:

LOIOL ETXE **OnDoaN**
Topagunea

VOLUNTARIADO

La acción voluntaria es uno de los ejes principales bajo los que se sustenta Loiolaetxea. Su centro es la integridad de la vida y la relación. El encuentro informal y vital es donde se desarrolla la tarea voluntaria fundamentalmente. El «hacer» pasa a un segundo plano y coge fuerza el «estar», acompañar y convivir con otras personas y sus realidades, desde una dimensión comunitaria; compartiendo la mesa, los entornos vitales-comunitarios dentro de la acción voluntaria, y esto facilita la transformación social en sí misma.



92 personas (39 mujeres y 53 hombres) han sido voluntarias en torno a varios grupos de trabajo o proyectos; voluntariado comunitario asociado al aprendizaje de idiomas, actividades de ocio y tiempo libre (yoga, fútbol, salidas de monte...), participación en la vida comunitaria residencial, participación en actividades comunitarias. Voluntariado asociado al Programa de Patrocinio Comunitario y, por lo tanto, al acompañamiento de personas refugiadas. Voluntariado comunitario asociado a los programas residenciales y referenciales; Marhaba, Comunidad de techo, en el centro de Ategorrieta 34, Red Mambré, etc. Y voluntariado asociado a los programas de participación social de ocio y tiempo libre con jóvenes y mujeres migradas.



EQUIPO HUMANO Y GOBERNANZA DE LOIOLAETXEA

El equipo de la Asociación Loiolaetxea ha estado formado este 2022 por:

- 20 personas contratadas en el equipo técnico, de las cuales 10 son mujeres y 10 hombres.
- 92 personas voluntarias en los distintos espacios y programas, de las cuales, 39 son mujeres y 53 hombres.
- 7 personas en la junta directiva de Loiolaetxea -formada por presidente, vicepresidente, tesorero, secretaria y 3 vocales-. De estas 7 personas, 2 son mujeres y 5 hombres.

PROYECTO DEL SECTOR SOCIAL	PROYECTO DE LA PROVINCIA DE ESPAÑA	PROYECTO DE LA PLATAFORMA APOSTÓLICA DE LOYOLA
----------------------------	------------------------------------	--

Modelo de intervención:
acompañar, servir, reflexionar, sensibilizar, transformar

LÍNEA DE INCLUSIÓN	LÍNEA DE JUSTICIA	LÍNEA DE HOSPITALIDAD
--------------------	-------------------	-----------------------

Comisión de acogida	Comisión de entorno seguro	Comisión de inculcación	Comisión de género	Comisión de comunicación	Comisión de ecología	Comisión de empleabilidad	Comisión de espiritualidad	Comisión de participación
---------------------	----------------------------	-------------------------	--------------------	--------------------------	----------------------	---------------------------	----------------------------	---------------------------

Para que las personas más desfavorecidas, puedan acceder a derechos, tengan calidad de vida y puedan autodeterminarse desde la base del cuidado del equipo.



Y a todo esto le sumamos la *mirada del cuidado al desgaste*, para revitalizarnos como equipo desde un plan de cuidado desarrollado a lo largo del 2022 y que ha constado de *2 sesiones grupales, 3 sesiones individuales y 2 entrevistas de inicio y de cierre del año*. Tratando temas tan claves del cuidado como son el desempeño profesional, la motivación, la comunicación, el lugar que ocupamos y el que deberíamos ocupar, la confianza y la fatiga por compasión.



**¡Cuánta vida dada y recibida!
2022**



Andia Kalea, 3 - 20004 DONOSTIA

Tel.: 943 285 676

loiolaetxea@loiolaetxea.org

 @loiolaetxea

 @loiolaetxea

Si deseas colaborar con la sostenibilidad del proyecto: Caja Laboral
ES32 3035 0217 75 2171022052

Si quieres colaborar desde el voluntariado,

llámanos o escríbenos.

¡Muchas gracias!

Txostena
2022
Loiolaetxea

3
4

Gure etxera datorrena
bere etxean dago

Bizitza ospatzen jarraitzen dugu gure
erakundearen **20 urteko**
ibilbidearen ostean

Loiolaetxea Elkartea, 2023

Espanian inprimatua. *Printed in Spain*

Inprimaketa eta koadernaketa:
Ulzama Digital – Huarte (Navarra) / www.ulzama.com



ESKERRIK ASKO
SUCRAM DYAKUYU GRACIAS
2022

Bizitza ospatzen jarraitzen dugu gure erakundearen 20 urteko ibilbidearen ostea

Urteko ekitaldi on gisa, Gizarteratzeko Loiola etxea Elkartetik esker oneko memoria egiten dugu. 2022. urteko begirada une oro misioan, *misioan* bertan eta harentzat egindako bidean, eman digun norabidean eta horizontean jarrita daukagu. Horizonteak prozesuaz, ibilbideaz, esperientziatz... hitz egiten digu. Bide horrek merezi izan du, askotan konplexua izan den arren, oso polita izan da beste batzuetan hura egin ahal izana, eta, batez ere, intentsitatea, sufrimendua, zuloak, erorikoak eta erremonteak, arrakastak eta porrotak, argiak eta itzalak esperimintatzeko luxua ahalbidetu dizkigulako merezi izan du. Bizitza borrokatzeak eta kausa justuen alde borrokatzeak pertsona, talde, boluntario, komunitate eta erakunde gisa zentzua eman digu, bizitzaz, gizatasunaz, aukerez, inklusioaz, zaintzaz, bizitako historiaz eta oraindik bizitzeko falta zaigunaz hitz egiten duelako.

Irudi batek mila hitz baino gehiago balio duela diote... gauzak horrela, urtea laburbildu nahi genuke, zuekin garenaz eta urtean zehar eraiki dugunaz asko esaten duten irudi batzuk partekatuz.

Txostena 2022
Loiolaetxea







Eta irudi horiek gogoan izanik, Loiolaetxea osatzen dugun pertsona guztiok batzen gaituen jatorria ahaztu gabe, eskertu egin nahi dugu emandako eta partekatutako guztia, *bidegabeko kausak bidezkoak bihurtu, zerbitzatu, hausnartu, eragin eta eraldatu* ahal izateko lagundu digutelako. 2022an landatutako erresistentzia-haziak 2023an, 2024an eta 2025ean emankorrek izaten jarraitzea nahi dugu. Eta indar horri esker, bizirik jarrai dezagun inor kanpoan gera ez dadin, lehen eta bigarren mailako herritarrik egon ez dadin, irregularrik egon ez dadin, bizi-kalitate onaz gozatzeko aukera berdinak izan ditzagun, eskubideak eskura izan ditzagun eta autodeterminatu gaitezkeela senti dezagun. Babesten gaituen aterkiak esan diezagula *elkarrekin* gehiago izan garela eta bagarela orain ere.

Gure baliabide, ahalegin eta jarduera gehienak laguntzan eta zerbitzuan eta, neurri txikiagoan, sentsibilizazioan oinarritu izan dira eta daude oraindik ere. Esker oneko memoria honetan, egindako gogoeten, beharrezko topaketa komunitarioen, taldearen zaintzaren eta bizi-hobe izateko egunero borrokatu duten pertsonen aniztasun aberasgarriaren mugari esanguratsuenetako batzuk nabarmendu ahal izango ditugu.

Esku hartzeko ildoak *-inklusioa, justizia eta abegikortasuna*-erronka gisa hedatzeak talde gisa progan jarri gaitu, Marhaba, Loturak eta Auzolana II bezalako *proiektu berritzaileak* garatzeko orduan sakabanatuta indarrekin lan egin behar izateagatik, abegi onaren ildoaren *arretaren edo berariazko egoitza-zerbitzuen edo zerbitzu mistoen* berregokitzearen barruan, justiziarri eta inklusioari arreta emateko ildoen barruan, Loiolaetxearen eredu komunitarioaren funtsa galdu gabe.

2022an zehar sortu izan diren beharrizan ugarietara erantzuteko, inoiz baino gehiago jarri behar izan dugu Loiolaetxearen misioa zentroan, eta une oro gogoratu behar izan dugu zertarako jaio zen, zer zentzu duen gaur egun, eta nola berritu behar den, misio-zentzuko erantzunak ematen jarraitzeko konpromisoaren atala den neurrian. Horretarako, lanean jarraitu dugu zeharkako taldeetan, *euskal hizkuntzarekiko eta kulturarekiko ikuspegi komun* horretan haztea ahalbidetu duten

hiru jardun-ildoen zeharkako taldeetan; aukerak indartzeko eta herritartasun inklusiboa sustatzeko *partaidetza*; indar ez-ukigarri horrek gizarteratze-prozesuetan transmititzen duen *espiritualtasuna*; *genero-berdintasuna eta -ekitatea*, erakundeen funtzionamendurako oinarrizko printzipio gisa; une oro aterpe ematen digun *etxe komuna zaintzea*; *harreraren zaintza*, Loiolaetxean sartzeko zutabe gisa; zaintza horren barruan pertsona kaltebereneei *ingurune seguru*a, lanekoa zein harremanetakoa, sustatzea; *enplegagarritasunaren* inguruko hausnarketa sortuz eta aukera berriak bilatuz; eta hori guztia nola egin lantaldearen barrurako eta kanporako *komunikazio*-bide egokiak aurkitzea zaila denean, eragina eta gizarte-erlidaketa errazteko.

Gure misioa PAren (Loiolako Plataforma Apostolikoa, Euskal Herrian eta Nafarroan, aurrerantzean PA), SJMren (Espainiako Jesuita Migratzaile Zerbitzua, aurrerantzean SJM), Gizarte Sektorearen eta Jesusen Lagundiaren Espainiako Probintziaren misioarekin lerrokatuta dago. Eta, jakina, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Sailarekin, Eusko Jaurlaritzako Espetxe Sistemarekin eta Eusko Jaurlaritzako Migrazio Sailarekin lerrokatuta. Horiek, aldi berean, baliabide asko eman dituzte arreta ona elkarrekin bideratu ahal izateko, gizarteratzeko prozesuak posible izan daitezen, egoera ahulean, arriskuan edo gizarte-bazterketan dauden pertsona askori aukera berriak ahalbidetuz.

Urtea amaitzeko, ikurtzat hartu dugu bizitzat *inklusioaren eta justizia sozialaren alde borrokatzen jarraitzea*. Esker on amaigabea beren borondateetik abiatuta egindako lanetik, komunitatean duten presentziatik, keinu ikusezinetatik, egotetik eta egoten uztetik lagundu duten pertsona guztiei, bai eta apustu komun horretan konfiantza eta irmotasuna jarri duten erakundeei eta oinarri sozialari ere; izan ere, elkarrekin egindako horri guztiari esker, posible izan da 2022a besterik gabe urtebete baino zerbait gehiago izatea.

Bihotz - Bihotzez
MARTA SILVANO PRIETO
Loiolaetxearen zuzendaria



NOR GARA

Gizarteratzeko Loiolaetxea gizarte- eta hezkuntza-arloko erakundea da, eta haren helburu nagusia gizartean esku-hartzea da. 2000. urtean abegi oneko komunitate baten babespean sortu zen, Jesusen Lagundiaren ahaleginetik. Deustuko Unibertsitatearekin, Donostiako San Ignazio Ikastetxearekin, Mariaren Konpainiarekin- OnDoAn, Arrupe Etxearekin, Loyola Zentroarekin eta Kristau Bizitzaren Komunitatearekin (CVX) lankidetzan aritzen da gizarte bidezkoago bat eraikitzeko, non pertsona guztiak protagonista izan daitezkeen, parte hartzeko aukera berdinak izango dituzten, eta, horrenbestez, herritarren kontzientzia sortuko duten gizartean eragiteko eta gizartea eraldatzeko.

GURE ESKU-HARTZE EREDUA

Lagundu

Laguntza giza topaketaren biluztasun gordinenean ematen da, pertsonak beren gizatasun partekatuan aurkitzen direnean eta elkar ezagutzea ospatzen dutenean. Horrela, ikaskideen artean harreman horizontalak ezartzen ditugu, eta elkarrekin abiatzen ostertzerantz bizitzaren egunerokotasunetik. Lagundu egiten dugu eta elkarri laguntzen diogu. Guretzat, egoera ahulean dauden pertsonen laguntzea etengabeko erronka eta lehia da, eta lan egiten dugun beste erakunde eta obra batzuekin burutzen dugu. Gure gizartean, uste dugu laguntzeko beharrezkoa dela gauden lekuetan errotuta egotea, eta loturak izatea, prozesu inklusiboetarako laguntza-harreman fidela izateko; konpromisoa hartzen duten pertsonekin eta gure gizarteko taldeekin elkartzeko.

Baliagarri izan

Zerbitzua sortzen da konturatzen garenean egoera ahulean dauden pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko baliabideak eskura ditugula. Gure zerbitzuak edo besteentzat baliagarri izatea bizi-kalitatea emateko eta norberaren eraldaketa sustatzeko proiektuak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten jarduera-ildoen bidez gauzatzen dira, bidezko kausen mesedetan.

Hausnartu

Ikerketetan eta hausnarketetan parte hartzea, zerbitzuaren edo baliagarri izatearen esperientzia abiapuntutzat hartuta, ezagutza akademikoaren argia eta datuen sakontasuna haren gainean proiektatuta; ekintzatik sortutako pentsamendua da, eta errealitatean eragiteko moduak bilatzen ditu, gizartetik baztertuta dauden pertsonen alde, arriskuan, egoera zaurgarrietan edo gizarte-bazterkerian daudenen alde.

Sentsibilizatu

Bizitako esperientzien prozesuak eta dueluak sustatzea, elkarrizketari eskaini ahal izateko, pertsonak, komunitateak eta erakundeak kontzientziatzeko eraldaketa pertsonalaren parte da. Ezagutuko ditugun berritasunak eta kontu ezezagunak iragartzen dituzten ideiak, jarrerak eta sinboloak zabaltzen dira. Sentsibilizazioa egiteko moduen eta bizi garen kulturaren eraldaketa lortzera bideratuta dago. Gizarte-taldeen arteko adiskidetasun-zubiak eraikitzen ditu. Espazio horietan sortzen diren harremanekin eta kontaktuekin hazten da. Alderdi zentrala eta eraldatzailea da, eta gizarteratze-prozesuen, prozesu terapeutikoen, justizia errestitutiboaren, abegi onaren, gizarte-mobilizazioaren, parte-hartzearen, komunikazioaren eta borondatezko ekintzaren bidez hedatzen dugu.

Eraldatu

Eragin publikoak eta egiturazko eraldaketak gure egiteko eta kokatzeko modu soila islatzen dute, bai komunitatean, bai gizarte-lanean. Hori dela eta, nahiko genuke epe laburrerako eragina izateaz gain, denboran iraunkorrak izateko, egoteko eta egiteko ereduak sortzea. Eragin politikorako bereziki garrantzitsua, entzuteko zailtasunak dituztenen interesak beharrezko tokietara helarazten saiatuz. Gure kasuan, gizarte-mobilizazioa eta eragina gure izatearen eta egotearen bidez, sareko lanaren bidez eta maila publikoan eta pribatuan erabakiak hartzeko gaitasuna duten pertsonekin hitz egitearen bidez gauzatzen da.


2022ko DIRU-SARREREN ETA GASTUEN BALANTZEA

SARRERAK	GASTUA	EMAITZA
Dirulaguntza publikoak, opariak eta norbanakoen ekarpenak	Giza baliabideak Zerbitzuak Kudeaketa Materialak eta taldea Zentroko ekintzak Amortizazioak Zerbitzu zentralak	24 373 €
932 570 €	908 196 €	


Kontuen Auditorea

BNFIX


2022KO DIRU-SARRERAK



PROGRAMAREN GASTUAK



2022KO GASTUAK



GURE INPAKTUA ZIFRETAN

Gure lana oinarrizko eta zeharkako zainketetatik esku-hartzeko hiru ildoetara garatzen dugu; talde-zaintzatik eta genero-begiradatik, aniztasun kultural, espiritual eta eleaniztunetik, eta etxe komunaren zaintzatik eta ingurune seguru baten aterkipean.

Hiru jarduera-ildoen multzoan (inklusioa, justizia eta abegi ona), Loiolaetxeak 2022an zehar hedatu ahal izan duenari indarra eta zentzua ematen dioten guztizko zenbakiak ateratzen dira, zuhaitz sendo eta aldi berean bizi-iturriaren sortzaile gisa eta kausa zuzenak indartzeko sustatzeko.

Gogobetetze-indize orokorra alde batera utzi gabe (8,4), zerbitzatzen ditugun pertsonen euren adierazitakoa, horien arreta-zifra orokorrak jasotzen ditugu:

LAGUNTZA JASO DUEN PERTSONA KOPURUA
254

GIZARTE-INKLUSIOA LERROA	JUSTIZIA LERROA	ABEGI ONA LERROA
47 (10 E eta 37 G)	59 (5 E eta 54 G)	148 (89 E eta 59 G)
EMAKUMEAK 104	GIZONAK 150	

INKLUSIO-PROZESUAK	JUSTIZIA-PROZESUAK	ABEGI ONAREN PROZESUAK
47	59	148

EMAKUMEAK DÉBORAREN PALMONDOA	GAZTEAK AHOTSAK ETA MARHABA	FAMILIAK AUZOLANA II ETA LOTURAK
15	39	24

BOLUNTARIOAK	PARTAIETZA ETA GIZARTE-AKTIBAZIOA
92	178



HARRERA-LURRALDEA GARA

Europari migratzaileen eta errefuxiatuen duintasuna eta haien eskubideak errespetatu ditzala exijitzeko ekimena. Egoera zaurgarri eta urratuetan daudenak pertsonen munduan pertsona gisa onartzeko aukera.

GIZARTE-INKLUSIO LERROA

Oinarrizko eskubideak eskuratzeko eskubidea da: hezkuntza, etxebizitza, osasuna, babes sozioekonomikoa eta herritar guztiek parte hartzeko aukera izatea.

47 pertsona izan dira egoitzako arreta- eta babes-zerbitzuak edo egoitzakoa ez den laguntza espezializatua jasotzeko aukera izan dutenak.

Gizarte-inklusio ildoan Loiolaetxearen jatorrian dago, Jesusen Konpainiaren ekimen propio gisa, eta finantzaketa publiko eta pribatuarekin garatu da. Arreta Gizarte Zerbitzuen bidez gizarte-bazterkeriaren tresnarekin (BARE) baloratzen diren pertsonengan jarri da. Tresna horri esker, Loiolaetxeko egoitza-zerbitzuetara eta egoitza-zerbitzuez bestelako zerbitzuetara sartu ahal izan dira. Zerbitzu horiek diruz lagundu dira Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako programa-kontratu baten bidez.



JUSTIZIA-LERROA

Askatasun-gabetzeak gelditzeko eta berriro aktibatzeak aukera ematen du, pertsona berriro herritar gisa hartzen denean eta gizartean aktiboki parte hartzen duenean. Pertsonen munduan pertsona izatea eta pertsona gisa tratatua izatea, eta geldialdi labur baten ondoren berriro parte hartu ahal izatea.

59 pertsona izan dira egoitzako arreta- eta babes-zerbitzuak edo egoitzakoa ez den laguntza (kanpoko) espezializatua jasotzeko aukera izan dutenak. 2. mailako baimenak izatea eta gradu-aurrerapenetako prozesuak ahalbidetzeko aukera izan dutenak.

Espetxe-justiziaren ildoan ere Loiolaetxearen jatorrian dago, Jesusen Konpainiaren ekimen propio gisa, eta finantzaketa pribatuarekin eta gizarteratze-prozesuetarako jasotako baliabide publikoen banaketa batekin garatu da 2021era arte. 2021eko urrian Euskal Autonomia Erkidegorako espetxe-transferentziak egin ziren, eta 2022an Eusko Jaurlaritzak birgizarteratze-prozesuak ahalbidetzeko berriazko baliabide publikoak eman zituen. 2022. urte honetan, gizarteratzeko baliabide propioak diseinatzen eta zabaltzen hasi dira.



ABEGI ONAREN LERROA

Giza bizitzaren kalitatea hobetzeko abegi oneko kultura sortzen erakusten dugu, aukerak erraztuko dituen, autodeterminazioa aukeratzen duten pertsonen bizi-prozesuetan berotasuna eskainiko duena eta kalitatea ekarriko duena, giza mugikortasunerako eskubidea oinarri hartuta.

148 pertsona izan dira (horietako batzuek familia-taldeak osatzen dituzte) egoitzako arreta- eta babes-zerbitzuak edo egoitzaz kanpoko laguntza espezializatua jasotzeko aukera izan dutenak.

Abegi onaren lerroari 2017an eman zitzaion hasiera, Jesusen Lagundiaren ekimen propio gisa, horretarako baliabide propioak ezarrita. Horretarako beharrezko baldintzak ez betetzeagatik eskubideak eskuratzetik kanpo geratzen ziren migratzaileengan jarri da arreta. 2022. urte honetan, ikusi da giza mugikortasuna, kasu askotan gatazka-egoerek eta herrialde askotan pairatzen den desberdintasunaren ondorioz sortutako premiek behartua, handitzen ari dela, eta, beraz, agendan lehentasunezko gai gisa jarri da, orain arte egindako ibilbidea ebaluatu eta inguruko herrialdeetan hainbat gatazka piztu ondoren indartu beharra dagoela egiaztatu ondoren.



EMAKUMEAK ETA AHALDUNTZEA DÉBORAREN PALMONDOA

Gune batzuk partekatzen ditugu OnDoAn Topagunearekin, Ellacuria Fundazioarekin eta Alboan elkartearekin, non emakumeek emakume izateagatik eta emakume migratzaile gisa dituzten eskubideak ezagutu eta horiei buruz hausnartzen duten. Eskubideak ikusarazteko, sentsibilizatzeko eta aldarrikatzeko protagonista gisa parte hartzen dute.

15 emakume militante izan dira, 2022an zehar gogotsu eta ekinean hainbat jardueratan parte hartu duten protagonistak:

- Formazioa
- Autobabesa
- Sentsibilizazioa
- Herritarren partaidetza



MAHAI-INGURUA

emakumeok martxan

EMAKUME MIGATZAILEAK, ESKUBIDEAK DITUZTEN EMAKUMEAK

9/11/2022
18:30 - 20:00
Teila Fabrika.
Buztintzen Zuzenbidea 214, 48100 Berritoa

Hizleriaren ahotzesatik, testigantzetatik eta esperientzietatik abiatuta, migrazioaren, generoaren eta eskubide-urraketen arteko harrimanean sakonduko dugu.

Hizleriak
Caddy Aduba. Kongoako emakumeen eskubideen, haurren eta prentsa-erakundearen aldeko abokatuak Kongoan (2018ko Aholkulariaren Printza Sariak)
Cristina Manzanaeda. COOS programaren talde koordinatzaileko kidea
Dimaribel Oloro Sepúlveda. Palmira de Déboraren kidea

OnDoAn **TEILA FABRIKA** **alboan**



GAZTEAK ETA PARTAIDETZA AHOTSAK ETA MARHABA

Programak familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileei laguntzen die autonomia pertsonaleko prozesuetan, horrela herritartasun parte-hartzailea eta aktiboa lortzeko, egoitza-gune komunitarioak sortuz, bertako gazteekin elkartzuz eta haien gizarte-partaidetza sustatuz.

39 gaztek izan dute nolabaiteko lotura proiektuaren bidez garatutako jarduerak eta ekintzetan:

- Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak; kanpalekuak, kulturalak eta kirol arlokoak.
- Borondatezko laneko eta komunitateari zerbitzua emateko jarduerak.
- Lehen eta bigarren zikloetako eta unibertsitateko ikastetxeetan sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea. Beste elkarte edo gizarte-mugimendu batzuekin batera.



FAMILIAK MAMBRÉ SAREA, AUZOLANA II ETA LOTURAK

Hainbat kultura, jatorri (Siria eta Ukraina, batez ere), erlijio eta bizi-une dituzten 24 familia izan dira 2022an zehar harrera jasotzeko aukera izan zutenak, eta hori guztia babesaren aitortzarekin. Urte honetan zehar, prestakuntza jaso ahal izan dute, gure gizartean aktiboki parte hartu ahal izan dute eta tokiko beste talde batzuekin lotura ezarri ahal izan dute. Izan ere, garatu diren jarduera eta ekintza desberdinetan, giza aberastasunaren topaketa komunitarioa egin da haiekin, eta harrera-lurraldea garela diogunean bilatzen dugun abegi onaren kultura sustatzeko aukera izan dugu.





Red Mambré Sarea

Red de Familias de Acogida a personas migrantes y refugiadas.
Biskaila, Gipuzkoa y Navarra

Persona migrazioaren eta errefuxiatuen Harrera Familiaen Sarea
Biskaila, Gipuzkoa eta Nafarroa

OnDoaN Topagunea y Loiolaetxea tenemos el gusto de invitarte a la **PRESENTACIÓN** de nuestra recién creada Red de Familias de Acogida a Personas Migrantes y Refugiad@s.

OnDoaN Topaguneak eta Loiolaetxeak sortu berri den Pertsona Migratzaile eta Errefuxiatuen Harrera Familia Sarearen **AURKEZPENERA** gonbidatzen zaituzte atsegín handiz.

Abenduak
16.
Diciembre
18:30
Sala Arrupe-Centro Loyola Andia 3, Donostia

PROGRAMA / EGITARAUA:

- Contextualización de la situación actual migratoria en Euskadi. / Euskadiko migrazio egoeraren egungo testuingurua.
- ¿Qué es la Red Mambré? / Zer da Mambré Sarea?
- Testimonios: Varias personas compartirán sus experiencias de vida / Lekukotzak: Hainbat pertsonak beren bizipenak partekatuko dituzte.
- Propuesta Concurso Literario sobre Migración y Acogida. / Migrazioari eta Harrerari buruzko literatura-proposamena.

CURSO
22/23

Zatoz gure harrera Sarea ezagutzera!

¡Hacer que alguien se sienta acogido es mucho más fácil de lo que crees!

Red Mambré Sarea Gipuzkoa:
LOIOL ETXE **OnDoaN**
Topagunea

BOLUNTARIOAK

Ekintza boluntarioa da Loiolaetxearen ardatz nagusietako bat. Ardatz horren erdigunea bizitzaren eta harremanaren osotasuna da. Topaketa informalean eta bizi-topaketan garatzen da, batez ere, borondatezko zeregina. «Egitea» bigarren maila batera pasatzen da, eta indarra hartzen du «egoteak», beste pertsona batzuekin eta haien errealitateekin laguntzea eta bizitzea, beti ere dimentsio komunitario batetik abiatuta; mahaia partekatuz, ekintza boluntarioaren barruko bizi-ingurune komunitarioak partekatuz, eta horrek gizartea bera eraldatzea errazten du.



92 pertsona (39 emakume eta 53 gizon) izan dira parte hartu duten boluntarioak hainbat lantalde edo proiekturen inguruan aritu dira; hizkuntzak ikasteari lotutako komunitate-boluntariotza, aisialdiko eta denbora libreko jarduerak (yoga, futbola, mendi-irteerak...), egoitzako komunitate-bizitzan parte hartzea, komunitate-jardueretan parte hartzea. Babes Komunitarioko Programari lotutako boluntarioak, eta, beraz, errefuxiatuei laguntzekoak ere izan ditugu. Egoitza-eta erreferentzia-programei lotutako boluntariotza komunitarioa; Marhaba, sabai-komunitatea, Ategorrieta 34 zentroan, Mambré Sarea, etab. Eta gazte eta emakume migratuekin aisialdiko eta denbora libreko gizarte-partaidetzako programei lotutako boluntarioak.



LOIOLAETXEKO LANTALDEA ETA GOBERNANTZA

2022 honetan Loiolaetxeako lantaldea honako hauek osatu dute:

- Lantalde teknikoan, kontratua izan duten 20 pertsona aritu dira; horietatik 10 emakumeak izan dira, eta beste 10, gizonezkoak.
- 92 pertsona boluntario aritu dira programa eta espazio desberdinetan; horietatik 39 emakumeak eta 53 gizonezkoak.
- Loiolaetxeako zuzendaritza-batzordea 7 pertsonek osatu dute –presidentea, presidenteordea, diruzaina, idazkaria eta 3 batzordekide–, 7 horietatik, 2 emakumeak dira, eta 5 gizonezkoak.

GIZARTE SEKTOREKO PROIEKTUA	ESPAINIAKO PROBINTZIAKO PROIEKTUA	LOIOLAKO PLATAFORMA APOSTOLIKOAREN PROIEKTUA
-----------------------------	-----------------------------------	--

Parte-hartze eredia Lagundu, baliagarri izan, hausnartu, sentsibilizatu, eraldatu
--

GIZARTE-INKLUSIO LERROA	JUSTIZIA LERROA	ABEGI ONA LERROA
-------------------------	-----------------	------------------

Harrera-batzordea	Ingurune babestua-ren batzordea	Kulturen arteko integrazioaren batzordea	Genero-batzordea	Komunikazio-batzordea	Ekologia-batzordea	Enplegarritasun-batzordea	Espiritualitate-batzordea	Partaidetza-batzordea
-------------------	---------------------------------	--	------------------	-----------------------	--------------------	---------------------------	---------------------------	-----------------------

Egoera ahulenean dauden pertsonak eskubideak eskuratu ditzaten, bizi-kalitatea izan dezaten eta taldearen zaintzaren oinarritik autodeterminatu ahal izan daitezten.



Eta horri guztiari gehitu behar diogu zaintzaren eta higaduraren arteko begirada, talde gisa suspertzeko 2022an garatutako zaintza-plan batetik abiatuta. Plan horrek taldeko 2 saio, banakako 3 saio eta urtea hasteko eta ixteko 2 elkarrizketa izan ditu. Zaintzaren funtsezko gaiak jorratu dira, hala nola jarduera profesionala, motibazioa, komunikazioa, gizartean betetzen dugun lekua eta bete beharko genukeena, konfiantza eta errukiak sortutako nekea.



Emandako eta jasotako bizitza!
2022



Andia Kalea, 3 - 20004 DONOSTIA

Tel.: 943 285 676

loiolaetxea@loiolaetxea.org

 @loiolaetxea

 @loiolaetxea

Proiektuaren iraukotasunean lagundu nahi baduzu: Laboral Kutxa
ES32 3035 0217 75 2171022052

Boluntariotzatik lagundu nahi baduzu,
deitu edo idatzi iezaguzu.

Eskerrik asko!